

Miopeak gara laino artean

**Xabier Mikel
Errekondo**

Miopeak gara eta ikusten duguna betaurrekoen arabera da. Herritarren gehiengo zabalak EiTB katearen, “DV”, “Correo”, SER... ikus-entzunezko nagusien betaurrekoetatik du ikusten. Nago herritar inozo askotxo ikus-entzunezkoek eguneroko berrien artetik zer eta nola ematen duten konturatu ere ez dela egiten, harago, EiTB taldearen eta medio nagusien informatzeko modu interesatuarekin bat egiten duela beste askok. Aitzitik, gizartearen zatirik kritikoena, elkarte soziopolitikoak nola he-

rritar konprometituek, gaitzetsi egiten dute.

Nago EiTBren txoritxoaren txioak kantuturiko soilak baino herritar gehiengoaren ontziak porturatzeko sirena kantuak direla, non miopei gobernua markako betaurrekoak dizkiguten jartzen. Hondakinekin izan jarrera adibide garbia da. EAJ eta PSeri interesatu zaien urteetan medioak alarma sortzen laguntzeko tresna bilakatu ziren, atez ateko bilketak konfliktua sortzen zuelako gezurra hauspotzen, zikina eta garestia zela, kaleak arratoi erraldoiz beteta zeude-

la, eta abar. Egun, aldiz, dena normalitate da, dena ongi doa eta ez dago gaiarekiko beste berririk gobernukideen mezua sendotzeko eta erraustegiaren bide bakar eta atzeraezina miopeon kontzientzian iltzatzeko ez bada. Gauza bat ziurra da, edo Europako epaitegiek Zubietako erraustegi toxikoa geratzen dute edo gipuzkoarrak miopeak eta minbiziak jotakoak izanen gara urte gutxitan. Ausartentzat ikasgaia: EAJren interesei aurre egiten dionak haren mendekua ezagutuko du. Besarkada bero bana *#AinhuaIn-txaurrandieta* eta *#IñakiErrazkin*. •

Ziztu bizian

**Maider Iantzi
Goienetxe**

Gero eta azkarrago doa bizia eta gero eta pazientzia guttiago dugu. Ondorioz, ez dugu ongi ikusten, ez gara konturatzen inguruan dugunaz, giblean uzten dugunaz. Gogoeta hori etorri zait oporretatik lanera bueltatu eta hiru egunera, sabelean, bularrean eta gorputz adar guztietan xinaurriak harat-honatean sumatzen ditudala. Ezinegona dut.

Bi egunez segidan ailegatu naiz prentsaurrekora lasterka, izerditan, ileak nahasita. Atzo, gaizki-ulertu batengatik, bueltaka ibili nintzen Hondarribian barrena. Oinez izan zen eta distantziak izuga-

rriak iruditu zitzaizkidan. Galdezka hasi eta ingelesez erantzun zidatenean jada irria eskapatu zitzaidan. Gaur urduriago nago. Istripu bat ikusi dut herri irteeran eta geldirik egon gara, pixka bat.

Geroago, peajera iristen, ze arraroa, auto pilaketak. Primeran edo segundan, barraskiloaren gisan, kasik geldirik baino okerrago. Ia CD osoa aditu dut, luze egin zait, denbora gainean sentitzen nuelako.

Hirian, semaforoak gorri, aparkatzeko ordaindu behar eta, gainera, horretarako ere itxaron (bost segundo luze!). Eta esprint ttikiak eginez segundoak lapur-

tuz, berreskuratuz, irribarrearekin «sentitzen dut» erranez sartu aretora.

Erredakzioan jakin dut herriko istripuan neska gazte bat hil dela eta zauritu batzuk ere badirela. Pantailak kontatu dit, egunero albiste gogorak kontatzen dizkidan bezala. Behar dugu pantailaren harresia, distantzia, babesteko, bizi ahal izateko. Baina behar dugu gogoeta ere, zer den garrantzitsua eta zer ez ohartzea. Kotxean geldirik gaudela aitzinekoari zerbait gertatu ahal izan zaiola konturatzea. Edo autobusean ilara sortu duen bidaiariak arazoren bat izan deza-keela. Behar dugu, dut, lasaitzea. •